

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1924'ko Joñaila' ren 25'an.

Aurako batzaraldian izan diran euskaltzain berak bildu dira, Azkue maipuru dutela oiturako otoitza egiñik.

1. Azkue jaunak bere *Morfologia* irakurtzen jaraitu du.

2. Aita Intzak Beriain-en dotriñan bildu dituen adizkerak azaldu ditu ta gañera liburu orñ zatiak ederki aztertu.

3. Urkijo jaunak esan du: Iztegiari, tarte-tarteka bildu litezken izen eta itz beñi batzuek, ezarñ lizazkiokela. Bai ere iztegian azaltzen ez diran lengo itz zarak. Euskaltzaindiak lan au arduraz artuko du.

4. Kanpion jaunak irakuñi du bere lan edera. «El vascuence y la lengua iberá».

5. Erabaki da: Daranatz urgazleari idaztea, gal-deturik ba ote dan iñor Bidaso-Aruntz *Erizkizundi-Irukoitza*-ren lana egin dezakenik.

6. Ezkutitzak: Batzuek irakuñi dira ta oien artean Etxegarai jaunarena esanik: bere euskaltzain sañerako itzaldia laxter bialiko duela.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzaraldi au.
